



LIBURUA

Haltzak badu bihotzik



DANI BLANCO

HALTZAREN MUINOA ANJEL LERTXUNDI ILUSTRAZIOAK: ANTTON OLARIAGA

ELKAR, 2020

XABIER ETXANIZ ERLE

Haltz bat dugu obra honetako protagonista. Arbola bat; mundua eza-gutu nahi duen arbola. Eta, denok dakigun bezala, arbola ezin da dagoen lekutik mugitu, ezin da itsasoraino joan, ezin ditu bidaiak egin... ala bai?

Muino batean dagoen haltza dugu protagonista, eta lehen ataletan (liburua orri bateko 96 ataletan dago banatuta) arbolak zer pentsatzen duen ikusiko dugu, zer sentitzen duen, nortzuk ibiltzen diren haltzaren inguruan, nola grabatu duen bihotz bat eta J-M inzialak jarri Martinek... Egoera, baina, erabat aldatzen da uholdeen ondorioz ur korronte batek haltza bota eta errekek darmanean. Hortxe hasten da abenturazko obra eta haltzaren ikuspegitik hainbat gertakariren lekuko izango gara. Nola salbatzen duten emakume bat helikopte-

ro batetik, hutsik pasatzen den sehaskak haltzarengan sorrarazten duen tristura eta kezka, hildako animalien presentzia uretan eta, batez ere, urak erdi itota daraman mutil bat nola salbatzen duen arbolak. Izan ere gure haltza, esfortzu handiz, mutila dagoen lekuraino doa eta beste enborra eta adarrak eskaini dizkio itsasoraino berarekin batera joan dadin.

Atal laburrak dira, oso azkar irakurtzen direnak, eta ez bakarrik luzeragatik, Lertxundik hainbatetan erritmo bizia darabilelako baizik: "Helikoptero bat zerruan. Itsaso aldetik dator, ibaian gora eginez. Oso baxu dabil, uholdeak ekarritako hondamendiak neurtzeko altura egokian inondik ere". Eta horrek guztiak irakurtzen jarraitzera eramaten zaitu. Gainera, liburuan gertakariak, gogoetak, protagonisten hizketaldiak tartekatzen

dira argumentuari arintasuna eta bizkortasuna emanez.

Haltzak bidaiatu nahi zuen, itsasoa ikusi eta bidai horretan heriotza izan du gertu, baina baita mila abentura bizi; eta narratzaileak dioen moduan: "Damu du ibai ondoko muinoa abandonatu izana? Damua baino gehiago, nostalgia da".

Aipagarriak dira, baita ere, idazleen aipuak, Lizardi, Lete, Celan, Elissalde,... eta gure kulturako erreferentziak; eta, nola ez, Antton Olariagaren ekarpena. Ilustrazio ugari daude, zuri-beltzean, testuak dioena azaltzen, batzuetan modu argian, askotan hori baino gehiago iradokitzen. Eta bien arteko konbinazioak, testu jaso eta arinek, eta ilustrazio iradokitzaileek, are ederrago egiten dute bihotza duen haltz honen istorio zoragarria. ●